

BAKE EKIMENA. Lizarra-Garaziko gogoetan oinarrituz, subiranotasun prozesua aztertuko dute bost alderdiek

Bake ekimen bateratua hitzartu dute EA, AB, Aralar, Zutik eta Batzarrek

Distentsioa errazteko, menia eman dezan eskatuko diote ETari

Aitor Renteria | BAIONA

Eusko Alkartasuna, Abertzaleen Batasuna, Aralar, Zutik eta Batzarre alderdi politikoek bake ekimen bateratua hitzartu dute. *Indarrak uztartzen zubiak eraikitzen* izeneko proposamena bihar gizarteratuko dute aipatu bost alderdiek Donostian, hedabideetara bidalitako oharrean jakinarazi dutenez. Oharrean aurreratzen dutenez, «garrantzi handiko ekimena da, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko oinarriak jarri nahi dituen, orain bizi garen egoera politiko itogarria atzean utzirik».

Bost alderdiek hiru lan talde osatu dituzte hiru lan ardatzen inguruan, EGUNKARIAK jakin ahal izan duenez. Lehen ardatzak Li-

zarra-Garaziko esperientziaren balorazioa burutuko du, bost alderdien ustez gertatu ziren lorpenak eta akatsak islatuz. Norabide horretan, subiranotasun prozesu baten ildotik, distentsioa ardiesteko esparrua osatu nahi dute. Horren kariatara, distentsioa errazteko, menia eman dezan eskatuko diote ETari adierazpen bateratuaren bidez.

Bigarren lan taldeak subiranotasun prozesua bera nola gauza daitekeen aztertuko du. Horretarako hitzei buruzko adostasunetik abiatu nahi dute, bertzeak bertze autodeterminazio hitzari irakurketa zehatz eta bateratua emanez.

Zentzu berean, subiranotasun prozesua horretako epeak aztertuko dituzte, zein izan daitezkeen lorpenak bost edo ha-

mar urteren buruan, eta nola hel daitekeen aipatu esparrura.

Hirugarren lan eremua subiranotasun prozesu hori gizarteratzeko moldeen inguruan egituratzen da. Horretarako ELA, EHNE eta bertze gizarte eragile zenbaitekin harremanetan sartuko dira.



GAIZKA IROZ

Aberri Egunaren ondoren «urrats gehiago» iragarri zituzten ABko ordezkariak, joan den asteartean egindako aurkezpenean.

ABERRI EGUNA. Gernikan ospatuko du

«Guztien eskubide guztiak» defendituko ditu Udalbitzako Zuzendaritza Batzordeak

Erredakzioa | BILBO

Euskal Herria eraikitzeko «pertsonek guztien eskubide guztiak» defenditu behar direla uste du Udalbiltzako Zuzendaritza Batzordeak, eta hala aldarrikatuko du Gernikan, Aberri Egunean. Udal hautetsien zuzendaritzak Aberri Eguneko ekitaldia aurkeztu du, eta martxoaren 31ko ekitaldiak izango dituen ardatzak zehaztu ditu. Hiru izango dira: Euskal Herriaren aitortza; pertsona guztien eskubide guztien defentsa; eta etorkizunaren giltza euskal gizarteak izan behar duela.

Juan Priede ETak hil duen zinegotzi sozialista gogoan izan zuten, eta herriaren ordezkari guztiak errespetatu behar direla azpimarratu du Udalbiltzako zuzendaritzak. Aberri Eguneko agirian ere atentatuak eta mehatxuak jasaten ari diren zinegotzietan elkartasuna adieraziko die Udalbiltzak.

Zeanuri, Gernika eta Aguirango alkateek hartu zuten parte Aberri Eguneko ekitaldia aur-

kezteko. Iñaki Beraza Aguirango alkateak esan zuen erakunde helburuen artean lehena guztien bizitza «errespetatzea» dela. Halaber, hautetsiei deia egin dien erakunde bakarra Udalbiltza dela gogoratu zuen. «Udalbiltza honek egin die dei Euskal Herriko hautetsi guztiak, eta, beraz, gonbita egin diegun guztiak ezin diegu bizitza kendu», adierazi zuen.

Idahoko ordezkariak eskerrak eman dizkiete, halaber, autodeterminazioaren alde eta indarkeriaren aurka hartu duten ebazpenarengatik. Adierazpen Instituzionala egin du Idahoko deklarazioa txalotzeko. Halaber, Idahoko Ganberako deklarazioa ahalbidetu zuten guztiak eskerrak eman dizkiete, batez ere Espainiako Gobernuaren presioei aurre egiten jakin dutelako. Hautetsien elkarteak, gainera, poztu egin da deklarazioak Udalbiltzak «bereak» dituen oinarriak aintzat hartu dituelako, hau da, herritarren erabakien errespetua, indarkeriarik eza eta elkarrizketa.

"2002ko Aste Berdea"

SARIEN DEIALDIA

1 «GARAPEN JASANGARRIA LORTZEKO HERRI-EKIMENAK»

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko udalen edo bestelako udal-nahiz herri-erakundeen baitako taldeek osatutako ekipoek sortutako proiektuak gauza daitezen bultzatzea, aintzatestea eta sustatzea.

A motakoak. – Udalek, mankomunitateek, koadrilek, garapen-agentziek eta abarrek aurkeztutako ekimenetarako.

9.000 euroko saria eta 3.000 euroko akzesita

B motakoak. – Elkarteek, herritar-taldeek eta udal/lokal-erakundeek aurkeztutako ekimenetarako.

6.000 euroko saria eta 2.000 euroko akzesita

2 «GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO INGURUMEN-HEZKUNTZAKO EKIMENAK»

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-komunitate osoan (lehen eta bigarren hezkuntzako, pribatuko zein publikoko, ikastetxeetan) eragingo duten eta edozein ikastetxetan sortuko diren proiektuak bultzatzea, aintzatestea eta sustatzea.

A motakoak. – Derrigorrezko haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako eskola edo ikastetxeetako lan-taldeen egindako ekimenetarako.

6.000 euroko saria eta 3.000 euroko akzesita

B motakoak. – Derrigorrezko bigarren hezkuntzako eskola edo ikastetxeetako lan-taldeen egindako ekimenetarako.

6.000 euroko saria eta 3.000 euroko akzesita

3 «INGURUMENARI BURUZKO ARGAZKI-LEHIAKETA»

Helburua: Garapen ekonomikoak eragindako arazoaren eta arazo horien alternatibak eta konponbideen inguruan (ingurumena errespetatzen dutenak) hausnarketa egiteko lagungarri diren argazki originalak egin eta hedatzea sustatzea.

Senior Mailako Saria. - 18 urtetik gorakoentzat.

Lehen saria **6.000 eurokoa**, bigarren saria **600 eurokoa** eta **300 euroko** 10 akzesit.

Gazte Mailako Saria. - 5 urte artekoentzat
500 euroko saria eta 200 euroko 10 akzesit.

• **Aurkezteko epea:** 2002ko maiatzaren 15eko eguerdiko 12:00ak arte.

Oinarri guztiak eska ditzakezu, edo IHOBEn kontsulta egin dezakezu:

- Posta elektronikoz: cruz.alonso@ihobe.net
- Telefonoz (IHOBEn zenbakia): **902 11 68 07**
- Web-aren bidez:

www.ingurumena.net
www.asteberdea.net

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA DEPARTAMENTO DE ORDENACION DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

IHOBE
Espainiako Inbertsio Publikoaren Erakundeak
Sociedad Pública Gestora Ambiental

CEIDA

